

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Donostiako (Gipuzkoa) «Azcarate Enea» Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.@@@

Donostiako (Gipuzkoa) «Azcarate Enea» Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non eskatzen baita ikastetxearen baimena aldatzeko, ikastetxeari ikasgela egonkorragi gehitu ahal izateko.

Espediente hori Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuari emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, beharrezkoak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko dena (1998ko abuztuaren 31ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen da, 2011-2012 ikasturteetik aurrera:

Kode-zenbakia: 20006626.

Izen espezifikoa: «Azcarate Enea».

Titularra: Asociación Guipuzcoana de Autismo. Gautena.

Helbidea: Francisco López Alen 4.

Udalerrria: Donostia.

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Hezkuntza Bereziko 11 unitate gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Hezkuntza Berezia: 16 unitate.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.